

Koldo Mitxelenaren *Idazlan Guztien* aurkezpena
Blanca Urgell Kultura Sailburua:

Duda izpirik gabe, gertakari handia da gaur egitera goazen aurkezpen honen bitartez ezagutaraziko duguna. Zentzu bitan da gertakari handi Koldo Mitxelenaren idazlan guztien bilduma hau: batetik, Mitxelenaren ikasle izan ginenok –eta orain haren jarraitzaile eta miresle garenok– aspaldi sumatzen genuen harekiko daukagun zorra era berezian kitatu beharra, dagoeneko egin izan dizkiogun omenaldiez gain; bestetik, gizaritari begira, eta batez ere euskalaritzaren garapenerako, Mitxelenaren obra guztiak modu bateratu eta bikain honetan eskura izateak mesede handia egiten dio alorrari, haren ideiak, metodoak eta lorpen ugariak bizirik dirautelako, eta etorkizunean ere izango direlako euskalarion lanaren pizgarri ez ezik, eredu nagusi ere. Alde honetatik, maisuari eskainitako omenaldia bainoago, euskalaritzari egiten zaion funtsezko zerbitzua da hau.

Horregatik ziur nago gertakari honek eragin handia izango duela diziplinan. Lanaren paratzaile nagusiek, Joseba Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz irakasleek, egin duten ahalegin miresgarriari zabalkunde egoki bat gehitu behar zaio orain, euskal filologiaren, linguistika historikoaren eta beste alor batzuen oinarri diren Mitxelenaren ekarpenak lau haizeetara hedatzeko.

Adibide pare bat aipatzea nahikoa izango dugu ekarpen horien garrantzia ikusgarri egiteko: 1963an Salamancan argitara emandako *Lenguas y protolenguas* liburuxka ezinbesteko erreferentzia da gure artean hizkuntzalaritza historikorako sarbide gisa, eta adituen ustetan mundu mailako garrantzia du lan honek. 1997an –pentsa ezazue, 34 urte beranduago– ingelesezko bertsioa plazaratu genuen Euskal Herriko Unibertsitatean, orduan sortu berria zen Mitxelena Katedraren lehenbiziko argitalpen gisa. Harrezkero, gure mugetatik kanpo ere ezagunagoa da lan hori. Hizkuntzen historia, eta batik bat euskararena, Mitxelenaren ez soilik zaletasun, baizik eta pasio handienetakoa izan zenez, hautu ezin hobea iruditu zait Mitxelenaren *Idazlan Guzti* hauen lehen liburukia eskaini izana hain zuzen hizkuntzalaritza historikoaren gaiari, *Lenguas y protolenguas* aurren izanik.

Bigarren adibidea: euskal filologia oro har pentsaezina litzateke *Fonética histórica vasca* gabe. 1959an argitaratu zen lehendabizikoz Mitxelenaren doktorego tesia izan zen lan hura. Gero, 1977an, Mitxelenak material asko erantsi zuen bigarren edizioan. Azken hau da gaur egun euskal filologo eta hizkuntzalarientzat erreferentzia nagusia, unibertsitatean eskolak emateko garaian nahiz ikerlanetan. Benetako *opera magna* honen ondoan euskararen egitura eta bilakabidea gero eta hobeto ezagutzen lagundu diguten eta mugarri izan diren hainbat eta hainbat artikulua aipatu daitezke. Prozesua geldiezin da, gaur egun ere, ofizioz kanpoko zenbait ausarten zorakeriak gorabehera. Lan horiek guztiak elkarren ondoan ikusteak poz eta plazer intelektual handia dakar berarekin.

Mitxelenak egin zuena egiteko –eta egin zuen garaian gainera, gure historia garaikidearen gorabeherak kontuan izanda– kemen handia behar da, eta dohaina, alegia: hizkuntzalari gutxi batzuek baino izaten ez dituzten ezaugarri inbidiatzekoak. Hark erakutsi eta jorratutako bide asko daude oraindik irekita, etorkizuneko ikerlanen zain. Baina Mitxelenak eman ziguna batez ere, aurkikuntza benetan jenialez aparte, oinarritzko zerbait da, bestelako tradizio linguistikoetan aspaldi ezarria zegoena: ikerketa linguistikoaren hastapen metodologikoak behin betikoz finkatzea. Antoine Meillet eta Émile Benveniste-ren konpainia noblean, filologia zehatzenak eta teoriarik indartsu eta eragingarrienak elkarren eskutik joan behar dutela erakutsi zigun, estandar zientifiko gorenera iritsi nahi badugu. Hauxe da abiapuntua, eta hauxe da bidea ere, Mitxelenak gure artean ireki eta betiko zedarritu zuena. Euskal hizkuntzalarien belaunaldi berriek behin eta berriz aitortuko dute hau, izan ere euskalaritza, gaur egun ezagutzen dugun moduan, ezinezkoa bailitzateke Mitxelenaren ekarri ugariak oinarrian eduki ezean.

Mitxelena hizkuntzalariak aritu naiz orain arte, horixe izan zelako nagusiki, filologo eta hizkuntzalari paregabea. Denok dakigu, ordea, Mitxelenaren itzala haratago doala, euskal kulturaren –eta, bidenabar, humanitateen– ia eremu guztietara hedatzen dela, euskararen lehendabiziko lekukotasunetik euskal literaturaren tradizio osora, Iberiako leku-izen zaharretatik XX. mendeko zine unibertsalera (iruzkin asko idatzi zituen honen inguruan, esaterako) edo egungo euskararen altxor lexikoa jasotzeko historian egin den saiorik handienera (gertu samarretik ezagutzen dudana *Orotariko Euskal Hiztegiak* ari naiz, noski). Gure herri honetan hizkuntza politikaz azken urteetan arduratu direnek ere oso kontuan izan dituzte Mitxelenaren esanak, beti arrazoizko eta orekatuak, gure gizarte elebidunaren eta hartu daitezkeen neurrien progresibotasunaren aldekoak, garbi ikusten zituen zailtasun eta aje guztien gainetik. Batua izan beharraz ohartu ez ezik, lehenengoetakoa izan zen erabiltzen eta lantzen, aurrenetakoa eraiki zutenen artean.

Edozein zela ere tratatzen zuen gaia, Mitxelenaren idatziek bi ezaugarri nagusi dituzte, nire iritziz: printzipio etiko irmoak, alde batetik, eta sen estetikoa, bestetik. Printzipio etikoak Mitxelenaren testuei darian zintzotasun intelektual erabatekoan islatzen dira: teoria distiratsu baten eta datuen errealitate gordinaren artean, kontraesanik bazegoen, egilea errealitatera makurtzen zen salbuespenik gabe, horretarako teoria bera bihurtu, egokitu edo aldatuz (eta inoiz ez alderantziz). Bestalde, Mitxelenaren testuek argiro frogatzen dute zorrotasun eta sakontasun zientifikoa ez direla inondik ere erakargarritasunaren etsai. Gauzarik inportanteenak ere modu arin, zenbaitetan ironiko eta beti erakargarrian kontatzeko ahalmena zeukan egileak, berezko zuen zentzu estetikoari jarraiki. Nago Mitxelenaren testuak irakurriz gozatu duen orok berehala ulertuko duela hemen adierazi nahi dudana.

Testu zorrotz eta eder baten irakurketak uzten duen sentipena berritzeko aukera izango dugu gaur hemen aurkezten diren Mitxelenaren idazlan guztien edizioari esker.

Eta eskertzekoak dira bereziki edizioaren ardura bere gain hartu duten ikertzaileen ahaleginak, argitalpena bera Mitxelenaren gustuko zatekeen maila tekniko eta, zergatik ez, estetikoan burutzeagatik. Bihoazkie, beraz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren esker onak arestian aipatu ditudan Joseba Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz irakasleei, eta haiekin elkarlanean aritu diren guztiei. Bai eta Gipuzkoako Aldundiari, proiektu honi lehen bultzada –ezinbestekoa– emateagatik. UPV/EHUari ere zorionak eman behar dizkiogu bere argitalpen politika sendoagatik. Kultura Sailean oso argi ikusi genuen argitaratze-ekimen honetan bidelagun izan behar genuela, ziur baikeunden proiektuaren emaitza egiatan gertakari handia izango zela euskalgintzan, eta ez –gainera– nolana hiko.

Apustua garbia izan da: Kultura Sailak 146.552 euroko laguntza eman du argitalpena egin ahal izateko.